



## 12.04.25EAN UDALBATZAK EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### BERTARATUAK:

Ramón Ajuria Uranga  
Lierni Altuna Ugarte andrea  
Ane Miren Echebarria Mendizabal andrea  
Miren Edurne Uribarren-Iturrieta Larrañaga andrea  
Andoni Solupe Amozarrain

José Ramón Uribe Uriarte jauna

Iñaki Nafarrate Kortabarría jauna

### EZ BERTARATUAK:

Idoia Beitia Izurrategi andrea  
Martín Damián Echave Echevarría jauna

*Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, bi mila eta hamabiko apirilaren 25ean, arratsaldeko zazpiak (19:00) direnean, goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, lehenengo deialdian, Ramón Ajuria alkatearen lehendakaritzapean eta Itxaso Trigueros idazkariaren laguntzarekin. Alkateak, quorum dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:*

### 1.- 12.03.28KO OHIKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

2012ko martxoaren 28an Udalbatzak eginiko bilkuren akten zirriborroari buruz korporazio-kideren batek esatekorik duen galdetu du alkate jaunak.

Inork ez duenez okerrik aipatu, Aramaio Udalbatzak bozketari ekin dio eta, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin (7 aldeko boto), ondorengoa ERABAKI DU:

2012ko martxoaren 28an egindako ohiko bilkuraren akta onartzea.

### HIRIGINTZA

### 2. CII IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ZENTROA ERAIKITZEKO 2. FASEKO 3. OBRA-ZIURTAGIRIA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Hirigintza Batzordeak ondorengo diktamena igorri du puntu honen inguruan:

*“Construcciones Artzamendi, S.A. enpresak egiten ari den CII eraikinaren obraren barruan, 3. Ziurtagiriari dagokion faktura aurkeztu zuen. Aipatutako faktura honen kopurua 111.328,80 €-koa da.*

*Hirigintza Batzordeak aho batez ondorengo proposamena egitea onartu du:*

Lehenengoa.- Aurkezten den eskaeraren aurrean, Obra zuzendaritzak egindako obra ziurtagiria ikusita, oniritzia ematea.

Bigarrena.- Egin beharreko ordainketa 06.533.682002 partidatik egitea onartzea.



Jarraian, eztabaida sortu ez denez, Aramaioko Udalbatzak bozketari ekin dio eta, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin (gehiengo absolutuz), ondorengoa ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** *CII Ikerketa eta Berrikuntza Zentroko 2. faseko lanen 3. Obra-Ziurtagiria* onartzea, bai eta lanen esleipenduna den Construcciones Artzamendi, S.A. enpresak aurkeztutako 11.328,80 euroko faktura ere (faktura zenbakia: 21), aipatu Obra-Ziurtagiriari dagokiona.

**Bigarrena.-** Aurrekoari jarraiki, 111.328,80 €-ko obligazioa onartu eta ordainketa agintzea.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau Construcciones Artzamendi, S.A. eta Obra Zuzendaritzari jakinaraztea.

**Laugarrena.-** Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzari jakinaraztea, onartutako diru-laguntzaren xedeetarako.

### **3. CII IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ZENTROA ERAIKITZEKO 2. FASEKO 3. OBRA-ZIURTAGIRIA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Puntu hau jorrotzeari ekin baino lehen, Alkateak azaldu du puntu hau Batzordeak jorratu gabe zeukanean sartu zuela aztergaien zerrendan, 2568/1986 Errege Dekretuko 82.3 artikulua babespean eta beraz, Udalbatzari dagokio erabaki hori berrestea. Halere, Alkateak aipatu du gaia atzo egindako hirigintza Batzordean jorratu eta dagokion irizpena aurkeztu dela.

Jarrain, bozketari ekin zaio eta bertaratutako zinegotzi guztiek berretsi dute puntu hau aztergaien zerrendan sartzea (7 aldeko boto). Ondoren, gaia jorrotzeari ekin zaio, aipatu Errege-Dekretuko 93. artikulak xedatu moduan.

Hirigintza Batzordeak ondorengo diktamena igorri du puntu honen inguruan:

*“Construcciones Artzamendi, S.A. enpresak egiten ari den CII eraikinaren obraren barruan, 4. Ziurtagiriari dagokion faktura aurkeztu zuen. Aipatutako faktura honen kopurua 79.193,27 €-koa da.*

*Hirigintza Batzordeak aho batez ondorengo proposamena egitea onartu du:*

Lehenengoa.- Aurkezten den eskaeraren aurrean, Obra zuzendaritzak egindako obra ziurtagiria ikusita, oniritzia ematea.

Bigarrena.- Egin beharreko ordainketa 06.533.682002 partidatik egitea onartzea.

Jarraian, eztabaida sortu ez denez, Aramaioko Udalbatzak bozketari ekin dio eta, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin (gehiengo absolutuz), ondorengoa ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** *CII Ikerketa eta Berrikuntza Zentroko 2. faseko lanen 4. Obra-Ziurtagiria* onartzea, bai eta lanen esleipenduna den Construcciones Artzamendi, S.A. enpresak aurkeztutako 79.193,27 euroko faktura ere (faktura zenbakia: 21), aipatu Obra-Ziurtagiriari dagokiona.

**Bigarrena.-** Aurrekoari jarraiki, 79.193,27 €-ko obligazioa onartu eta ordainketa agintzea.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzari



jakinaraztea, onartutako diru-laguntzaren xedeetarako.

---

## **UDAL GOBERNUARI JARRAIPENA ETA KONTROLA**

### **4. 40/12 – 48/12 ZENBAKIEN ARTEKO ALKATEAK EGINDAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Gainontzeko korporazio-kideen jakinerako, Alkatetzak 24/12tik 39/12 zenbakira eman dituen Dekretuak banatu dira bilkura-deialdiarekin. Oraingoan, horien berri eta azalpenak eman ditu era laburrean. Alkateak, korporazio kideren batek galdetzekorik duen galdetu du.

Inork ez du galderarik izan, baina hala ere Alkateak aipatu du Dekretuen artean dagoen 2011ko ekitaldiko likidazioaren inguruko azalpenak emango direla datorren astean egingo den Ogasuna Batzordean.

Honi erantzun dio Alkateak politikoak ezin direla epaimahaian egon. Idazkariari galdetu dio eta honek berretsi du.

### **5. MOZIOAK (7/1985 Legeko 46.2.e) artikulukoak)**

#### **5.1. BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKOIA: “PAROT” DOKTRINAREN INGURUAN.**

BILDU udal taldeko ordezkariak hurrengo mozioa aurkeztu du:

*Parot Doktrina izenez ezagun egin da azken urteotan, Espainiako Auzitegi Gorenak 2006ko otsailaren 20an ebatzitako 197/2006 sententzia. Espainiar estatuak euskal preso politikoaren kolektiboari ezarritako salbuespen neurrien barruan kokaturiko erabaki honek, euskal presoaren kondenak era neurrigabearen luzatzea du helburu nagusia.*

*Aipaturiko ebazpen horren ondorioz, espetxe-onurak edo erredentzioak espetxe-zigor bakoitzari aplikatzen zaizkio, eta ez guztira bete beharko lirakeen gehieneko 30 urteko kopuruari, ordura arte egiten zen bezala, kondenak era nabarmenean luzatuz.*

*Auzitegi Gorenak 2006ko otsailaren 20an kaleratu zuen ebazpena, eta martxoaren 2an doktrina hori 1973ko Zigor Kodearekin epaitutako guztiei ezartzea agindu zuen Javier Gomez Bermudez Auzitegi Nazionaleko epaileak. Agintza horrek, bete betean harrapatu zituen Aramaioko herritar diren Jon Agirre Agiriano eta Luis Mari Azkargorta. Jon jada etxean dugun arren, Azkargortaren kasuan, Parot doktrinaren aplikazioaren ondorioz, 11 urtez luzatu diote kondena. 2007ko urriaren 8an askatu behar zuten, baina 197/2006 sententziaren aplikazioarekin, 2018ra arte luzatu diote kondena.*

*Salbuespeneko neurri honen aurkako helegiteak aurkeztu ziren Espainiako Auzitegi Konstituzionalean, tartean Luis Mari Azkargortarena. Auzitegi honek, 'Parot doktrina' ezarri dieten 28 euskal presoaren babes helegiteak aztertu ondoren, hiru besterik ez ditu onartu: Jose Ignacio Gaztañaga arrasatearrarena, Juan Mari Igarataundi zestoarrarena eta Jose Mari Perez zarautzarrarena. Ebazpena jasotzean aske geratu dira hiru herritarrok. Txanponaren beste aldean ditugu, ordea, beraiek aurkeztutako helegiteak ez onartzearekin, kondena era bidegabean luzatu dieten gainontzeko 25 euskal presoak. 28 kasu hauetan boto partikularrak izan dira.*

*Hori guztia kontuan hartuta, Aramaioko “Herrira” plataformaren izenean, honako adierazpen hau aurkeztu dugu, Aramaioko Udaleko Osoko Bilkura honetara, eztabaidatua eta onartua izan dadin:*

*1.- Udal honek, “Parot doktrina” deiturikoa salatu eta gaitzesten du.*



2.- Udal honek, Euskal Preso Politikoaren eskubideen errespetua eskatzen du. Zigorra beteta duten presoaren askatzea, eta era berezian, "Parot doktrina" deiturikoaren deuseztatpena.

3.- Auzitegi konstituzionalaren ebazpen honen aurka aurrerantzean egin daitezkeen mobilizazioekin bat egitea ahal duten heinean. Argi utzi nahi dugu epai honen aurka gaudela eta espero dugu Europako Auzitegiek hau atzera botatzea.

4.- Luis Mari Azkargorta, Aramaioko herritarren egoeraren aurrean, babesa eskaini, bai berari, baita bere ingurukoei ere.

5.- Herritarrei deialdi zabal eta anitza luzatu nahi diegu ezberdintasun politiko guztien ginetik giza eskubideen alde urratsak eman eta herri bezala, eraso honi erantzuna ematera.

Jarraian, eztabaida sortu ez denez, bozketari ekin zaio ondorengo emaitzarekin:

6 aldeko boto

Abstentzio 1 (EAJ/PNV Taldeko zinegotzia)

Beraz, Aramaioko Udaltzak gehiengo absolutuz mozioa onartu du.

## 6. ESKARIAK ETA GALDERAK

Nafarrate jaunak hartu du hitza:

1.- Gaurko bilkurako gai zerrenda penagarria iruditzen zaiola adierazi du. Bi obra-ziurtagiri eta atzo eskuz emandako mozio bat besterik ez al dagoen aztertzeko galdetu du. Beti azkenengo orduan gaiak zerrendatik kanpo sartzen. Konkretuki aipatu du aztergaietan sartu ez den gai bat eta bere ustez egon behar zena: Alkatearen 42/12 dekretua, 2011ko aurrekontuaren likidazioa onartzen duena. Dekretu horretan ebatzitakoaren arabera (bosgarren puntua), *erabaki horren berri, dagozkion ondorioak izan ditzan, Osoko Bilkurari emango zaio*. Hori 2012ko martxoaren 28an egin zen. Aztergaien zerrendan zergatik ez den sartu galdetu du.

Alkateak erantzun dio esan duela Batzordea egingo dela horri buruz azalpenak emateko, baina dena den deialdiarekin emandako Dekretuen artean hori badagoela, eta beraz, horren berri eman da.

2.-Irubidetako etxearen ormake kableak noiz kenduko diren galdetu du.

Azalpen batzuk eman dizkio Hirigintza Batzordeburuak.

3.-Hiltegi zaharreko beheko solairua erabiltzeko araurik dagoen eta zertarako erabiliko den galdetu du, bai eta komuna publikoa erabiltzeko asmoa badago nork zainduko duen.

Alkateak esan dio beheko solairua erakustokia izango dela eta horren erabilera arautuko dela, baina oraindik ez dago zehaztuta. Komunarena ere zehaztu barik dago.

4.- Ertzainak azkeneko denboraldian sarritan dabilta Aramaion, baina Ibarren ez dute zaintzen norabide debekatuak edota bertan azaltzen diren seinaleak.

Alkateak lapurrak kontrolatzeko daudela esan dio, eta norabideen puntuari dagokionez, jakinaren gainean gelditu da.

Udaletik idatzi bat bidali beharko litzatekeela iradoki du.



5.- Aurreko bilkuran esan zuena errepikatu du, esanez plazako piboteak kendu egin beharko liratekeela eta are gehiago plazara derrigorrez etorri behar direnak norabide debekatutik pasatzen direlako. Piboteak kendu edo seinalea aldatu.

Alkateak esan dio hori ez dagoela erabakita eta ikusi beharko dela zer egin, kontrako iritzia ere baitaude.

6.- Andra Mariko ermitaren erreteilaren obraren baimena, urtarrilean eskatu zena, oraindik ez zaiola bidali eskatzaileari salatu du.

Alkateak esan dio obra hasi zela lizentziarik gabe eta hori dela eta Udalean beste izapide batzuk egin behar izan direla.

7.-Aste honetan Alkateari entzun dio ABB eraikuntza laster zabalduko dela. Honen inguruak informazio jasotzea nahi luke. Legealdi honetan ez dela inolako informaziorik eman salatu nahi izan du, ez Udalbatzan ez Batzordeetan. Adierazi dituen zalantzak hauexek dira: Zeintzuk dira ekimen honen helburuak?Zergatik osatu da fundazioa? Udaleko ordezkariak zeintzuk dira eta noiz eman da horren berri?beste ordezkariak zeintzuk dira? Bidaragarritasun azterketa egin al da? Noiz azalduko zaio Udalbatzari?

Alkateak esan dio Fundazioa udaletik kanpo dagoen erakunde bat dela, udala babesle moduan agertu da soilik.

Nafarratek esan du gutxienez Udalbatzari azalpenak ematea.

Lierni Altunak hitza eskatu du argitzeko Fundazioan Udaletik izendatutako ordezkariak Korporazio honek egindako 2. bilkuran erabakik zela eta beraz berak jakinaren gainean egon beharko litzatekeela.

Nafarratek esan du proiektua ofiziala dela eta horren berri ofizialki ematea eskatzen duela, eta aurrean ez dela informaziorik eman ez Udalbatzan ez Batzordeetan.

Alkateak esan dio hori gezurra dela.

Nafarratek erantzun dio komentatu bai, baina ofizialki ez dela ezerren berri eman. Diru publikoa inbertitu da eta horri emandako erabileraren nondik norakoak jakiteko eskubidea daukala.

8.-2011ko azaroaren 9an idatzi bat bidali zen Kulturako zinegotziari eta Alkateari, oraindik erantzun barik dagoena. 16 emakumek inolako oharrik gabe yoga egiten zuten lekua beste ekimen bat egiteko hartuta dagoela jakin izan dute.

Lierni Altunak aipatua izanagatik hartu du hitza. Azaldu du egia dela zuzenean ez duela idatzi hori erantzun, baina yoga eskola horiek haiek antolatutako gauza bat dira, udalak ez du hori antolatu. Hala eta guztiz ere, aretoa libre egoteko ahaleginak egiten dira, dagoen lekua da daukaguna.

9.- Alkateak joan den astean egindako adierazpenetan bat hau zen: "Lapurteko prebentzio plana". Plan hau zer den jakitea nahiko lukeela esan du ez baitu plan honen berri izan ez batzorde, ez Udalbatzan.

Alkateak argitu dio ez dagoela prebentzio planik, Ertzaintzarekin hitz egin zela lapurreten inguruan eta esan zutela prebentzio beharrezkoa dela. Halere bando bat atera da honen inguruan.



10.- Udalbatza eta batzordeetako bilkuren aktak web orrian jartzeko bost urte darama Bildu-Batasunak, baina hilero 489 € ordaintzen dira web orriaren kudeaketagatik.

Lierni Altuna aipatua izanagatik hartu du hitza. Azaldu dio web gunea berrizteko lanetan daudela eta asko jota uztailean espero dela bukatzea.

11.- Joan den hilean Alkatea Lyonon egon zen itxura denez. Kontabilitatean 1.171 euro inguruko gastuak agertzen dira. Zertara joan zen? Norekin? Zer helburuarekin? Ez batzordeetan eta ezta Udalbatzan ere ez digu inolako azalpenik eman. Normala da hilabete pasa ondoren?

Alkateak esan dio Ingurumen Teknikaria eta bera joan zirela, horretarako partida bat dagoela eta Biomasa Proiektua nola kudeatzeko informazioa lortzeko feria batera joan zela, makinak ikusi eta kontaktuak egiteko.

Nafarratek galdetu dio ea Teknikariak txostenen bat ez ote duen egingo, berak hala nahi lukeela.

Alkateak esan dio baietz.

12.- Alkateak egiten dituen dekretoak egin eta gero ematen zaio batzordeari horren berri Hau da gardentasun eredia?

Alkateak esan dio hori ez dela beharrezkoa, Udalbatzak hartu beharreko erabakiak batzordetik pasatu behar direla soilik.

Nafarratek esan du badakiela batzordetik ez pasatzeko eskubidea duela baina gardentasun ikuspuntutik ez dela desiragarriena.

Lierni Altuna zinegotziak hitza hartu eta esan du Dekretuak batzordetik pasatzea ez dela gardentasun eredia, gaiak batzordeetan jorratu eta gero egiten direla Dekretuak.

13.-Ogasuna batzordea hilero egitea eskatu du, ez baitzaio ematen behar duen garrantzia.

Alkateak esan dio ez dagoela gairik hilero deitzeko.

Nafarratek esan dio beti daudela diru-mugimenduak eta gutxienez hilabetean behin eman beharko litzateke aurrekontuaren egoeraren berri.

14.- Batzordetako deialdiak batzuetan ez direla sinatuta bidaltzen esan du.

Korporazioa jakinaren gainean geratu da.

15.- Onartutako gastuen artean, abokatu baten minuta dago, 4.832 eurokoa. Zer espedienteetan hartu du parte?

Alkateak hurrengo bilkuran argituko diola esan dio. Nafarratek erantzun du asko iruditzen zaiola hilabete bat itxarotea.

Nafarratek bere galdera eta eskaerekin amaitu eta Andoni Solupe zinegotziak hartu du hitza. Nafarrate zinegotziak telebistan egindako adierazpenekin (udal zinegotziak ez direla udaletxean arratsaldeko 6ak baino lehen) ez dagoela bat ere ados, eta zentzu horretan prudentzia eskatzen dio.



gainontzeko zinegotziek ez dutenez besterik azaldu, Alkateak hartu du hitza, Udalak espainiar estatuko bandera ez jartzeagatik jaso duen demandaren berri eta nondiknorakoak azaltzeko.

*Honekin eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, iluntzeko 20:25ak direnean, alkate jaunaren sinadurarekin hemen jasotzen den bilkurari amaiera eman diogu.*